*Hace ya más de veinte años, un grupo de altzatarras reunidos en torno al Centro Cultural Casares, con la intención de tender el imprescindible puente entre el pasado y el presente de Altza, se propuso recuperar su memoria histórica, iniciando así la colección Altza Hautsa Kenduz que con la publicación del que tienes en tus manos, llega a su décimo volumen.*

*Para darnos cuenta de la importancia de esta colección no tenemos más que repasar los trabajos publicados en estos diez volúmenes. La combinación de contenidos de diferente clase y estilo, reuniendo temas históricos, geográficos, sociales, económicos y artísticos, desde una perspectiva personal o colectiva, y de formas tan variadas como puedan serlo una crónica o un cuento, una entrevista o unos poemas, un estudio o una colección de fotografías, en algunos casos mirando al pasado y desarrollando temas contemporáneos en otros, imprime un excelente carácter a la colección.*

*En cada nueva entrega el número de artículos y de páginas ha ido creciendo, y poco a poco han ido incorporándose más y más colaboradores, lo que avala el interés del proyecto y reafirma su validez. En este décimo volumen, es muy grato ver que algunos de los colaboradores del primer número siguen con nosotros, y que se enriquece con un tercer idioma, el gallego, que se suma así al euskera y castellano, presentes desde el principio.*

*A la vez que agradecemos a todos los colaboradores su participación, les pedimos que sigan "desempolvando" todo aquello que tenga que ver con la historia de Altza, pues conscientes de la importancia de su labor para conocer y entender mejor nuestra vida, pondremos los medios posibles a nuestro alcance para su difusión.*

Orain dela 20 urte Casares Kultur Etxearen inguruan bildutako altzatar talde batek, iraganaren eta etorkizunaren arteko zubi lana eginez, memoria historikoa berreskuratzea erabaki zuen, Altza Hautsa Kenduz bildumaren bidez. Esku artean duzun liburu hau bildumaren hamargarren zenbakia da.

Bilduma honek duen garrantziaz jabetzeko nahikoa da bertan argitaratu diren lanei errepasoa egitea. Estilo eta mota ezberdinetako edukiak landu dira: historikoak, geografikoak, sozialak, ekonomikoak eta artistikoak. Ikuspegi indibidual eta kolektibotik, eta forma ezberdinetan emanak: kronika edo ipuina, elkarrizketa edo poema, ikerketa edo argazki bilduma, historiari begira edo gaur egungo gaiak landuz. Eta horrek guztiak nortasun berezi bat ematen dio bilduma honi.

Edizio bakoitzean artikulu eta orrialde kopurua gehitzen doa, eta poliki-poliki kolaboratzaile kopurua ere bai; horrek proiektuaren interesgarritasuna frogatzen du eta balioa berretsi. Pozgarria da, eta esanahitsua, hamargarren edizio honetan lehenengo aleko kolaboratzaile batzuk ere topatzea. Bestalde, hasieratik presente dauden euskara eta gaztelaniaz gain hirugarren hizkuntza batekin aberastu dugu azken edizio hau, galegoarekin, alegia.

Altzan hautsa kenduz ari diren guztiei, gure esker ona adierazteaz gain, horrela jarrai dezatela eskatuko genieke, euren lanek duten garrantziaz jabetzen baikara. Guk, gure aldetik, eskura ditugun bitarteko guztiak jarriko ditugu lan horiek ahalik eta zabalkunde egokiena izan dezaten.